



LANBIDE
HEZIKETAKO ZIKLOEN
PROGRAMAZIOA

PROGRAMACIÓN
DE LOS CICLOS FORMATIVOS
DE FORMACIÓN PROFESIONAL



GARRAIOA ETA
IBILGAILUAK
MANTENTZEA

AUTOMOZIO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA

5. modulua: **Gainazalen Tratamendua eta Estaldura**

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

LANBIDE
HEZIKETAKO ZIKLOEN
PROGRAMAZIOA

PROGRAMACIÓN
DE LOS CICLOS FORMATIVOS
DE FORMACIÓN PROFESIONAL



GARRAIOA ETA
IBILGAILUEN
MANTENTZE LANAK

AUTOMOZIOKO GOI MAILAKO TEKNIKARIA

5. modulua: **Gainazalen Tratamendua eta Estaldura**

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA
Lanbide Heziketako eta Etengabeko
Ikaskuntzako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN
Viceconsejería de Formación Profesional
y Aprendizaje Permanente

Argitalpena: 1.a, 2010eko apirila

© Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco
Departamento de Educación, Universidades e Investigación

Egilea: Iñaki Ansa Mendizábal

Edizioa eta koordinazioa: Víctor Marijuán Marijuán
KOALIFIKAZIOEN ETA LANBIDE HEZIKETAREN EUSKAL INSTITUTOA
INSTITUTO VASCO DE CUALIFICACIONES Y FORMACIÓN PROFESIONAL
www.kei-ivac.com



Diseinua eta maketazioa: TRESEDTRES

Lege-gordailua: BI-383/2010



Orduak: 200
Unitate kopurua: 10

Esku artean duzun argitalpen hau lanean ari diren lankideek landu dute.

Edozein gairen programazioa oso lan pertsonala da, irakasle bakoitzaren esperientzia oinarritua eta, horrenbestez, subjektiboa. Premisa hori kontuan izanik, programazioa aztertzea eta egoki baderitzozu kontsultarako material gisa erabiltzea gonbidatzen zaitugu. Zure irakasle-lana bideratu dezakeen gida gisa ere baliagarria izan dakizuke.

Izan ditzakeen mugak aintzat hartu badira ere, heziketa-ziklo berrien OCDak abiapuntu izanik sortu eta diseinatu da, eta EAEn curriculum-diseinuaren eta irakaskuntza-programazioaren arloan indarrean dagoen legeria hartu da kontuan (otsailaren 26ko 32/2008 Dekretua).

Erabilgarria izan dakizun espero dugu, eta, aldi berean, egileek lan honetan egindako ahalegina eskertzen dugu.

AURKIBIDEA

UD-EN SEKUENTZIAZIOA ETA DENBORALIZAZIOA	04. or.
0. unitate didaktikoa : 0 Moduluaren aurkezpena	05. or.
1. unitate didaktikoa: 1 Norberaren eta ingurumenaren babes- eta segurtasun-sistemak aztertzea	08. or.
2. unitate didaktikoa: 2 Lehen ekipoetan karrozeria pintatzeko prozesua aztertzea	11. or.
3. unitate didaktikoa: 3 Korrosioa aztertzea eta karrozeria babesteko teknikak aplikatzea	13. or.
4. unitate didaktikoa: 4 Lixatzeko ekipoak eta prozesuak aztertu eta aplikatzea	18. or.
5. unitate didaktikoa: 5 Gainazalak berdintzeko prozesuak aztertu eta aplikatzea	23. or.
6. unitate didaktikoa: 6 Prestagaiak aplikatzeko prozesuak	30. or.
7. unitate didaktikoa: 7 Pintatzeko teknikak eta prozesuak aztertu eta aplikatzea	35. or.
8. unitate didaktikoa: 8 Pintatze-akatsak zuzentzeko teknikak aplikatzea	45. or.
9. unitate didaktikoa: 9 Kolorimetriako eta lausotzeetako teknikak aztertu eta aplikatzea	50. or.
10. unitate didaktikoa: 10 Proiektua: Pinturaren arloan konponketa bat planifikatu, egin eta kontrolatzea	56. or.



Unitate didaktikoen sekuentziazioa eta denboralizazioa

EDUKI MULTZOAK						UNITATE DIDAKTIKO SEKUENTZIATUAK	IRAUPENA
M1	M2	M3	M4	M5	M6		
						UD0: Moduluaren aurkezpena.	1 h
					X	UD1: Norberaren eta ingurumenaren babes- eta segurtasun-sistemak aztertzea.	7 h
X	X		X		X	UD2: Lehen ekipoetan karrozeria pintatzeko prozesua aztertzea.	5 h
X	X				X	UD3: Korrosioa aztertzea eta karrozeria babesteko teknikak aplikatzea.	25 h
X	X		X		X	UD4: Lixatzeko ekipoak eta prozesuak aztertu eta aplikatzea.	25 h
X	X				X	UD5: Gainazalak berdintzeko prozesuak aztertu eta aplikatzea.	35 h
X	X	X			X	UD6: Prestagaiak aplikatzeko prozesuak.	20 h
X	X		X		X	UD7: Pintatzeko teknikak eta prozesuak aztertu eta aplikatzea.	40 h
X	X	X	X	X	X	UD8: Pintatze-akatsak zuzentzeko teknikak aplikatzea.	15 h
X	X	X	X	X	X	UD9: Kolorimetriko eta lausotzeetako teknikak aztertu eta aplikatzea.	20 h
X	X	X	X	X	X	UD10: Proiektua: Pinturaren arloan konponketa bat planifikatu, egin eta kontrolatzea.]	7 h
GUZTIRA							200 h

1. multzoa: Prestatu, babestu, berdindu eta txukuntzeko teknika.
2. multzoa: Gainazalak babestu eta berdintzeko produktuak aplikatzea.
3. multzoa: Kolorimetria.
4. multzoa: Gainazalak pintatzea.
5. multzoa: Akatsak zuzentzea.
6. multzoa: Arriskuei aurrea hartzeko, norberaren segurtasuneko eta ingurumen-babeseko neurriak aplikatzea.



0. unitate didaktikoa: MODULUAREN AURKEZPENA							Iraupena: 1 ordu								
Ikaskuntzaren helburuak:															
<ol style="list-style-type: none"> 1. Moduluen garapeneren plangintza orokorra ezagutzea, baita taldekideak ere. 2. Irakasleak prestakuntza-prozesuaren kudeaketan aintzat hartu eta aplikatuko dituen irizpideak ulertzea. 3. Ikasleak moduluari dagokionez dituen eskubideak eta betebeharrak identifikatzea. 4. Moduluen unitate didaktikoen arteko eta moduluen eta beste moduluen arteko lotura nagusiak ulertzea. 5. Norberaren jakintzak identifikatzea, moduluan lortu behar diren jakintzei dagokienez. 															
EDUKIAK										Multzoak					
										1	2	3	4	5	6
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Zikloko moduluen arteko eta zikloaren eta erreferente dituen kualifikazioen arteko loturak aztertzea. • Diziplinaren, metodologiaren, erlazioen eta antzeko beste gaien inguruan planteatzen diren alderdiak, arauak eta elementuak identifikatzea, eta euskarri egokian erregistratzea. 														
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Zikloa osatzen duten kualifikazioak eta moduluarekiko lotura. • Moduluen ekarpena zikloko helburuak lortzeko garaian. • Moduluen helburuak. • Modulua eta unitate didaktikoak ebaluatzeko irizpideak. 														
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Taldeko kide guztiengan, baita irakaslearengan ere, desiragarriak diren portaeren inguruan adostasuna lortzearen garrantzia baloratzea. • Moduluen garapenean jarraitu beharreko arauak eta irizpideak. 														
JARDUERA					METODOLOGIA						BALIABIDEAK				
ZER egingo duan edo duten Jarduera mota	Helburu inplikat.	D.	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den								
			Ir.	Ik.											
J1. Ikasleen eta irakaslearen aurkezpena.	1	10 min	X	X	Irakasleak eta ikasleek nork bere burua aurkeztuko dute. Irakasleak iradokiko ditu aurkezpenen interesgarriak izan daitezkeen alderdiak, eta informazio bat edo bestea ematea hautazkoa izango da.	Helburua da hasierako ezagutza lortzea eta gizarte-oztopoak haustea, taldeko kideen arteko komunikazioa erraztearren. Aurreko ikasturtetik sortutako taldea denean, ez da jarduera hau beharrezkoa izango.	Ez da bitarteko berezirik behar.								



J2. Programazioa osatzen duten elementuen aurkezpena.	2-4	10 min	X	X	Irakasleak programazioa osatzen duten elementuak, ordutegiak eta abar aurkeztuko ditu, eta, horretarako, eskema bat erabiliko du edo baliabide informatiko bidezko aurkezpena egingo du.	Ikasleek modulua gaiaren programazioari, egiturari, loturei, denborari eta iraupenei buruzko ikuspegi orokorra jaso beharko dute, besteak beste.	Arbela. PowerPoint-en egindako aurkezpena edo antzekoa. Kronogramak. Informazioa duten fotokopiak.
J3. Prestakuntza-prozesuaren kudeaketa gidatuko duten irizpideen eta arauen aurkezpena.	2-3	10 min	X	X	Irakatsi eta ikasteko prozesua kudeatzeko erabiliko diren askotariko irizpideak ezagutaraziko ditu irakasleak. Gardenkiez edo beste elementu batzuek lagundutako ahozko azalpena erabiliko du. Hortaz, azterketak zuzentzeko eta ebaluatzeko irizpideak, barne-erregimeneko araudia, diziplina-erantzukizunak, eta abar azalduko ditu. Zalantza guztiak argitzeko denbora-tartea zabalduko da.	Horrela, ikasleek ikasketa, gizarte eta harremanen arloko esparrua ezagutu eta ulertuko dute, eta arazko esparru horretara moldatu ahal izango dute haien jarduna.	Ikasgelan edo lantegi-ikasgelan egin daiteke jarduerak, eta ez da baliabide berezirik behar.
J4-E1. Egin beharreko lanbide-moduluaren gainean ikasleek aurretik dituzten jakintzen identifikazioa.	5	30 min	X	X	Jarduera hori elkarrizketaren bidez garatu ahal izango da, baita ikasleek erantzun beharreko irakaslearen galderen bidez, edo, bestela, ondorio horretarako prestatutako galdera irekien bidez edo erantzun anitzeko galderak dituen galdera sorta baten bidez.	Moduluan garatuko diren edukiei dagokienez, ikasleen abiapuntuko jakintza-maila ezagutu nahi da. Abiapuntuko jakintza hori ezagutzeak programazioa berregituratzeko eta taldearen eta gizabanakoen errealitateara egokitzeko aukera emango dio irakasleari.	Galdera sortak.

OHARRAK

- Nahikoa izango da J1 jarduerak moduluetakoren batean egitea. Zikloko taldeak adostu beharko du zein modulutan egingo den.
- J4 jarduerak mantendu ahal izango dira, nahiz eta unitate didaktikoetako bakoitzean hasierako ebaluazioa barnean hartzen duen jarduerak egin. Bi jarduerak horiek bateragarriak eta osagarriak izango dira beti. Aurretiazko jakintzetarako lehen hurbilketa izan daiteke, ondoren, unitate bakoitzean abiapuntuko jakintza horretan gehiago sakontzeko.
- Modulu honen unitate didaktikoetan, jarduerak irakatsi eta ikastekoak (J) edo ebaluaziokoak (E) izan daitezke. Zenbaitetan, jarduerak bera, irakatsi eta ikastekoak ez ezik, ebaluaziokoak ere izan daitezke. Halakoetan, jarduerak hori (Jn-Em) gisa adieraziko da eta hiru motak bilduko ditu. J-en zenbakikuntza (n) eta E-ena (m) elkarrekiko independenteak dira.



1. unitate didaktikoa: NORBERAREN ETA INGURUMENAREN BABES ETA SEGURTASUN SISTEMAK AZTERTZEA

Iraupena: 7 ordu

IE6: Arriskuen prebentziorako, norberaren segurtasunerako eta ingurumen-babeserako neurriak aplikatu ditu, lan-baldintzak eta arrisku-faktoreak balioetsi ondoren.

Ikaskuntzaren helburuak:

1. Lehen segurtasun-faktore gisa, instalazioen eta ekipoen ordena eta garbitasuna ebaluatzea.
2. Karrozeria-lantegiaren lan-inguruneetan ohikoenak diren arrisku-egoerak identifikatzea.
3. Lan-baldintzak langilearen osasunarekin erlazionatzea.
4. Karrozeria-lantegiari lotutako kalte profesionalen motak deskribatzea, bereziki lan-istripuei eta lanbide-gaixotasunei dagokienez.
5. Larrialdietarako jardun-protokoloak zehaztea.
6. Hondakinak sailkatzea, haien toxikotasuna, ingurumenaren gaineko eragina eta ondorengo gaikako erretiratzea kontuan izanda.
7. Lan-prozesuetan laneko arriskuen prebentzioari, eta babes pertsonal eta kolektiboari buruzko arauak ezagutzea.

EDUKIAK		Multzoak					
		1	2	3	4	5	6
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Norberaren babesa edo NBEak erabiltzea. • Lantegian dauden seinaleak identifikatzea. • Produktuen eta makinaren segurtasun-fitxak interpretatzea. • Pinturaren arloan ohikoenak diren kalteen aurrean jardunbidea zehaztea. • Hondakinak bildu eta baztertzea. 						X X X X X
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Banako eta taldeko prebentzioa eta babesa. • Karrozeria-lantegiaren berezko arriskuak. Prebentzio-baliabideak. • Norbera babesteko ekipamendua. • Lantegiko seinaleak. • Lantegiko segurtasuna. • Segurtasun-fitxak. • Ingurumen-babesa. • Hondakinak bildu eta erretiratzeko sistemak. • Produktu kutsatzaileak biltegitratzeko araudia. 						X X X X X X X X X



JARRERAZKOAK		<ul style="list-style-type: none"> NBEa erabiltzeko konpromisoa. Talde-lanean lagundu eta sartzea. Ingurunea, pertsonak eta ekipamendua errespetatzea. 										
JARDUERA					METODOLOGIA				BALIABIDEAK			
ZER egingo duan edo duten Jarduera mota	Helburu inplikak.	D.	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den					
			Ir.	Ik.								
J0. UDaren aurkezpena.	Guztiak	0,15 h	X	X	Ikasleei eskatuko zaie moduluan izan daitezkeen arrisku pertsonalak eta ingurumenaren gainekoak laburki zehazteko. Jarraian, irakasleak moderatu beharreko eztabaida piztuko da.	Ikasleei aurrez jarrera egokia harrarazteko NBEak erabiltzearen behararen eta nahitaezkotasunaren aurrean, bai eta hondakinak egokiro kudeatzeak duen garrantziaren aurrean ere. Kurtsoan zehar beharko duten babes-materialaz aurretiaz homitzeko.	Ikasleen ekarpenak. Irakaslearen apunteak eta aurkezpenak. Zirkulu bat egin ahal izango den ikasgela, eztabaida errazteko.				X	
J1. Azalpena, pintura-lantegiko arrisku ohikoenei buruzkoa. Lantegian erabiltzen diren segurtasun-seinaleak.	1-2-3-5-7	1,45 h	X		Irakasleak pintura-lantegian arrisku-egoerak zein diren eta nola sor daitezkeen azalduko du modu teoriko-praktikoan. Era berean, arrisku- edo larrialdi-egoeretan jardun-protokoloak zein izango diren azalduko du.	Ikasle bakoitza lantegiaren ingurunearekin ohitzeko, eta segurtasun- eta ebakuazio-elementuen kokapena ezagutzeko.	Irakaslearen apunteak eta aurkezpenak. Lantegiaren berezko segurtasun-materiala (suteetako ur-hartune ekipatuak, suitzalgailuak, seinaleak, ebakuazio-planoak). Ordenagailua eta proiektzio-kanoia.					
J2. Azalpena, pintura-lantegian erabiltzen diren produktuen eta tresnen segurtasun-fitxei buruzkoa.	3-4-5-7	1 h	X	X	Irakasleak ahozko azalpena egingo du eta ikasleek topa ditzaketen fitxen irudiak erakutsiko ditu. Irakasleek, benetako fitxetan oinarrituta, horiek interpretatuko dituzte.	Ikasleek lanean erabiliko dituzten osagai toxikoak eta sukoiak aztertu eta horien inguruan gogoeta egin dezaten.	Apunteak, segurtasun-fitxak, liburuak, gaiarekin lotutako bideoak, Internet, etab. Ordenagailua eta proiektzio-kanoia.					



J3. Azalpena, pintura-lantegian hondakinak biltegitratu eta kudeatzeko aplikatzen diren prozesuei buruzkoa.	1-6-7	1 h	X		Irakasleak ahozko azalpena egingo du, eta materialak biltegitratzeko sistemen eta hondakinak kudeatzeko prozesuen irudiak erakutsiko ditu.	Ikasleek lantegian sortzen diren hondakinen nahitaezko kudeaketak eta ordenak duten garrantziari buruzko ikuspegi bat izan dezaten.	Apunteak, liburuak, gaiarekin lotutako bideoak, Internet, etab. Ordenagailua eta proiektzio-kanoia. Ikasgela.
J4. Informazioa biltzea, eta J1, J2 eta J3 jarduerekin lotutako idatzizko lana egitea.	Guztiak	2 h		X	Ikasleak, J1, J2 eta J3 jardueretan azaldutakoan oinarrituta, bi taldetan banatuko dira. Erdiek arrisku pertsonalei eta NBEak erabiltzeari buruzko lan bat egingo dute, eta beste erdiek hondakinak kudeatzeari eta eskolako lantegian biltegitratzeari buruzkoa.	Informazioa bilatzeko interesa izateko. Etorkizuneko lanak egiteko hainbat argitalpenekin eta informazio-iturriekin ohitzeko. Aztertutakoa jasoko duen idatzizko lan txikia egiteko.	Apunteak, liburuak, gaiarekin lotutako bideoak, Internet, etab.
J5-E1. Aurkezpena, idatzizko lanei buruzkoa.	Guztiak	1 h	X	X	Talde bakoitzak egindako idatzizko lana azalduko du gainerakoen aurrean, eta horiek dagozkion oharrak jasoko dituzte lan horren inguruan. Irakasleak eztabaida piztuko du, prestakuntza hobetzen lagunduko duten behin betiko ondorioak ateratzeko.	Jendaurreko azalpena praktikatzeko eta norberaren ondorioak gainerakoei aditzera emateko. Azalpen-tresnen prestakuntza eta erabilera zabaltzen laguntzeko. Irakaslea ikasleak gidatzen joan daiteke azalpenean zehar. Ebaluazio-proba txikitat hartzeko.	Ordenagailua eta proiektzio-kanoia erabili ahal izango diren gela.

OHARRAK

- Ikasleek egindako lanak artxibatu behar dira eta ebaluazio-nota bat jarri behar zaie. Horri esker, UDa kalifikatu ahal izateko erreferentzia bat eduki ahal izango da.
- Lanaren aurkezpenean, haren garbitasuna, edukia eta kalitatea balioetsiko dira.
- Komenigarritzat jotzen da segurtasun- eta ebakuazio-planetak aditu baten partaidetza izatea (suhiltzaile bat, prebentzio- eta segurtasun-arduradun bat...). Hori ezinezkoa balitz, irakasleak bere gain har dezake eginkizun hori.



2. unitate didaktikoa: LEHEN EKIPOETAN KARROZERIA PINTATZEKO PROZESUA AZTERTZEA

Iraupena: 5 ordu

IE1: Aplikatu beharreko konponketa-prozesua zehazten du, eta, horretarako, gainazalak babestu, berdindu eta txukuntzeko geruzen ezaugarriak aztertzen ditu.

IE2: Gainazalak babestu, berdindu, zigilatu eta hosgabatzeko teknikak aplikatzen ditu, eta, horretarako, lan-prozedurak interpretatzen ditu.

IE6: Arriskuen prebentziorako, norberaren segurtasunerako eta ingurumen-babeserako neurriak aplikatu ditu, lan-baldintzak eta arrisku-faktoreak balioetsi ondoren.

Ikaskuntzaren helburuak:

1. Korrosioak ibilgailuari eraso egiteko faktoreak, eta babes aktibo eta pasiborako prozesuak deskribatzea.
2. Gainazalak babestu, berdindu eta txukuntzeko erabiltzen diren produktuen ezaugarriak azaltzea, eta horiek ibilgailuaren eremuekin eta prozesuekin lotzea.
3. Ekipoen, makinen eta baliabideen ezaugarriak deskribatzea, eta horiek prozesuekin lotzea.
4. Lixatze-prozesuen bidez gainazalak babestu eta txukuntzeko geruzak identifikatzea.
5. Muntaia-sekuentzia finkatzea, ezarritako prozedurari jarraituz.
6. Eskatutako zehaztapen teknikoak eta kalitatekoak betetzeko amaierako akabera zehaztea.
7. Besteak beste, korrosioaren aurkako produktuak, betetzekoak, zigilatzaileak, aparrak eta hosgabetzailerak aplikatzea, eta produktuak eta aplikazio-eremua hautatzea.
8. Ezarritako prozedurari jarraituz eragiketa-sekuentzia zehaztea, fabrikatzailearen zehaztapenak kontuan izanda.
9. Hondakinak sailkatzea, haien toxikotasuna, ingurumenaren gaineko eragina eta ondorengo gaikako erretiratzea kontuan izanda.
10. Lan-prozesuetan laneko arriskuen prebentzioari, eta babes pertsonal eta kolektiboari buruzko arauak deskribatzea.

EDUKIAK		Multzoak					
		1	2	3	4	5	6
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Pintura motak identifikatzea (babestu, berdindu eta txukuntzea). • Eragiketa-sekuentzia zehaztea. • Pintura-prozesuetan amaierako kalitatea kontrolatzea. 	X	X		X		
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Korrosioaren aurkako eta berdintzeko tratamenduak fabrian. • Txukuntze-prozesuak fabrikazioan. • Segurtasunari eta ingurumen-babesari buruzko arauak. • Pintatze-prozesuak. 	X	X			X	
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • NBEa erabiltzeko konpromisoa. • Ingurunea (pertsonak eta ekipamendua) errespetatzea. 						X X



JARDUERA					METODOLOGIA		BALIABIDEAK
ZER egingo duzan edo duten Jarduera mota	Helburu inplikatuak.	D.	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den
			Ir.	Ik.			
J0. Udaren aurkezpena.	Guztiak	0,5 h	X		Irakasleak ibilgailuak fabrian egiteko prozesuari buruzko bideo bat edo gardenkiak proiektatuko ditu. Proiektu jarraitua izango da, etenik gabea.	Ikasleak ibilgailuen fabrikazio-prozesu orokorraren aurrean kokatzeko.	Ordenagailua eta proiektzio-kanoia, bideoa edo irakaslearen aurkezpenak. Ikasgela.
J1. Azalpena, ibilgailuen fabrikazio-prozesuan emandako urrats bakoitzari buruzkoa.	Guztiak	2 h	X		Gardenkiez edo bestelako elementuez lagundutako hitzeko azalpen baten bidez, irakasleak ibilgailuen fabrikazioa osatzen duten etapak ezagutzera emango ditu.	Prozesu bakoitzaren berezitasunak ezagutzeko, eta horiek ibilgailuen eraikuntzaren eta txukuntzearen azken emaitzan duten garrantziaz jabetzeko.	Irakaslearen apunteak eta aurkezpenak. Ordenagailua eta proiektzio-kanoia. Ikasgela.
J2. Informazioa biltzea eta idatzizko lana egitea, lantegian ditugun ibilgailuek dituzten babes- eta txukuntze-geruzen inguruan.	2-4-5	2 h		X	Ikasleek, J1ean azaldutakoan oinarrituta, lantegiko zenbait ibilgailu dituzten babes- eta txukuntze-geruzak identifikatuko dituzte. Geruzak ikusteko, lixatze-teknika erabiliko dute.	Lehen ekipoetan erabiltzen diren osagaiak eta horiek gainetik pintatutako ibilgailuekiko dituzten aldeak aztertu eta horien inguruan gogoeta egiteko.	Lantegiko ibilgailuak, lixa, lixatzeko makinak, laneko arropa eta NBEak.
J3-E1. Lanen azalpena eta balioespena.	Guztiak	0,5 h	X	X	Ikasleek irakasleari idatzizko lana entregatuko diote eta irakasleak lan hori puntuatuko du.	Lantegian garatutako lanekin lotutako txostenak prestatu eta aurkezten trebetasuna lortzeko.	Apunteak, liburuak, gaiarekin lotutako bideoak, Internet, etab. Ordenagailua. Ikasgela.
OHARRAK							
<ul style="list-style-type: none"> • Ikasleek egindako lanak artxibatu eta kalifikatu behar dira. Horri esker, UDa ebaluatu ahal izateko erreferentzia bat eduki ahal izango da. • Lanaren aurkezpenean, haren garbitasuna, edukia eta kalitatea balioetsiko dira. • Komenigarria litzateke bigarren eskuko ibilgailuak eta ibilgailu berriren bat, edo, besterik ezean, pieza berriren izatea, babes-geruzen eta txukuntze-geruzen arteko aldea ikusteko. 							



3. unitate didaktikoa: KORROSIOA AZTERTZEA ETA KARROZERIA BABESTEKO TEKNIKAK APLIKATZEA

Iraupena: 25 ordu

IE1: Aplikatu beharreko konponketa-prozesua zehazten du, eta, horretarako, gainazalak babestu, berdindu eta txukuntzeko geruzen ezaugarriak aztertzen ditu.

IE2: Gainazalak babestu, berdindu, zigilatu eta hosgabetzeko teknikak aplikatzen ditu, eta, horretarako, lan-prozedurak interpretatzen ditu.

IE6: Arriskuen prebentziorako, norberaren segurtasunerako eta ingurumen-babeserako neurriak aplikatu ditu, lan-baldintzak eta arrisku-faktoreak balioetsi ondoren.

Ikaskuntzaren helburuak:

1. Elementuaren materialaren arabera (metalikoa edo sintetikoa), babestu, berdindu eta txukuntzeko geruzekin erabili beharreko produktuak zerrendatzea.
2. Disolbatzailearen eta lixaren teknika erabilia, ibilgailuaren pintura mota identifikatzea (sintetikoa, akrilikoa, geruza bakarrekoa eta bi geruzakoa, besteak beste).
3. Lan-prozedura fabrikatzailearen zehaztapenen arabera hautatzea.
4. Muntaia-sekuentzia finkatzea, ezarritako prozedurari jarraituz.
5. Eskatutako zehaztapen teknikoak eta kalitatekoak betetzeko amaierako akabera zehaztea.
6. Konpondu beharreko eremua desugertu, prestatu eta garbitzeko prozesuak erabiltzea, eta gainazalaren egoera egiaztatzea.
7. Dokumentazio teknikoa interpretatzea, eta sinbologia eta zehaztapenak aplikatu beharreko prozesuarekin eta produktuekin lotzea.
8. Gainazalak babestu eta berdintzeko prozesuetan erabiltzen diren materialak eta denborak balioestea, eta ibilgailuaren fabrikatzaileak zehaztutakoetara egokitzea.
9. Produktuak prestatzea, nahasteen proportzio- eta biskositate-arauei jarraituz.
10. Ekipoen eta instalazioen parametroak doitzea.
11. Lainoztatu behar ez diren eremuak estaltzea.
12. Besteak beste, korrosioaren aurkako produktuak, betetzekoak, zigilatzaileak, aparrak eta hosgabetzaileak aplikatzea, eta produktuak eta aplikazio-eremua hautatzea.
13. Hondakinak sailkatzea, haien toxikotasuna, ingurumenaren gaineko eragina eta ondorengo gaikako erretiratzea kontuan izanda.
14. Lan-prozesuetan laneko arriskuen prebentziora, eta babes pertsonal eta kolektiboari buruzko arauak aplikatzea.

EDUKIAK		Multzoak					
		1	2	3	4	5	6
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Pintura motak identifikatzea (babestu, berdindu eta txukuntzea). • Eragiketa-sekuentzia zehaztea. • Fitxa teknikoa eta segurtasun-fitxa interpretatzea. • Norbera babesteko ekipamendua erabiltzea. • Aplikazio-prozesuetan beharrezkoak diren ekipo eta instalazioen parametroetan doikuntzak egitea (gainazalak berdindu, zigilatu eta hosgabetzea). • Tratatu beharreko gainazalak prestatzea (lixatzea, koipegabetzea...). • Estaltze-prozesuak egitea. 	X	X				



	<ul style="list-style-type: none"> • Produktuak nahasi eta prestatzea. • Inprimazioak aplikatzea. • Zigilatu eta hosgabetzeko produktuak aplikatzea. • Hondoko pinturak aplikatzeko prozesuetan amaierako kalitatea kontrolatzea. • Erabilitako ekipok eta produktuak garbitu eta birziklatzea. • Ezarrita dauden laneko segurtasunari eta ingurumenari buruzko arauak betetzea. • Norberaren babesa edo NBEak erabiltzea. 		X					X	
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Korrosioa metalezko materialetan. • Korrosioaren eraso-faktoreak. • Korrosio-saiakuntzak. • Babes-teknikak. • Hondoko pinturei buruzko VOC (Volatile Organic Compounds) araudia. • Korrosioaren aurkako babesak konponketan. Inprimazioak: motak, ezaugarriak eta aplikazio-metodoak. • Hondoko pinturak estaltzeko teknikak. • Pinturen osaera, sailkapena (lehortzea, solido-edukiak). • Babes-produktuak: xedea eta sailkapena. • Ekipo aerografikoak: erregulazioa. • Instalazioak: kabinak, xurgatze-eremuak, aire-instalazioak... 	X							
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • NBEa erabiltzeko konpromisoa. • Ingurunea (pertsonak eta ekipamendua) errespetatzea. • Arreta erabilitako erremintak, makinak eta instalazioak kontserbatzean. • Praktiketarako ezarritako epeekiko konpromisoa. 							X	
JARDUERA				METODOLOGIA				BALIABIDEAK	
ZER egingo duan edo duten Jarduera mota		Helburu inplikat.	D.	NORK		NOLA egingo den		ZERTARAKO egingo den	
				Ir.	Ik.			ZEREKIN egingo den	
J0. Udaren aurkezpena.		Guztiak	0,5 h	X		Irakasleak ibilgailuetan edo karrozeriaren elementuetan korrosioa ikusiko deneko bideo bat edo gardenkiak proiektatuko ditu.		Bai ibilgailuaren estetikorako, bai haren segurtasunerako korrosioak dakarren arazoaren aurrean ikasleak kokatzeko.	
								Ordenagailua eta proiektzio-kanoia, bideoa edo irakaslearen aurkezpenak.	



J1. Azalpena, korrosioari eta hura agertzea errazten duten faktoreei buruzkoa.	1-2-3-5-6-8	2 h	X		<p>Irakasleak apunteez, gardenkiez edo proiektzioez baliatuz garatuko du gaia.</p> <p>Piezen diseinuari buruzko gaia eta haien aurretiazko tratamenduarekin lotutako nabarmenduko ditu.</p> <p>Karrozeriaren berariazko elementuak eskura izango ditu, horien eraikuntza nolakoa den eta korrosioak jotzen dituzten zein egoeratan geratzen diren erakusteko.</p>	<p>Korrosioa zein egoeratan agertzen den, eta, eraikuntzaren, tratamenduaren edo dagokion materialaren arabera, zein berezitasun dituen jakiteko.</p>	<p>Ordenagailua eta proiektzio-kanoia, bideoa edo irakaslearen aurkezpenak.</p> <p>Karrozeriaren elementuak.</p>
J2-E1. Informazioa biltzea eta idatzizko lana egitea, lantegian dauden ibilgailuek dituzten korrosioguneen inguruan.	1-2-3-5-6-8	2 h		X	<p>Ikasleek, J1ean azaldutakoan oinarrituta, oxidoguneak edo korrosio-puntuak agertzen direneko zenbait egoera identifikatuko dituzte.</p> <p>Elementuren bat desmuntatu behar izanez gero, beharrezko erreminta erabiliko dute.</p>	<p>Korrosioa agertzeko joera handiena duten eremuak eta hura tratatu ahal izateko piezen diseinuak duen garrantzia aztertze eta horren inguruan gogoeta egiteko.</p> <p>Lana ebaluatu egingo da eta modulua ebaluaziorako kontuan hartuko da.</p>	<p>Lantegiko ibilgailuak.</p>
J3. Azalpena, pinturen konposizioarekin lotutako gaiari buruzkoa.	1-2-3-5-7-9-10-13-14	2 h	X		<p>Irakasleak pinturen konposizioari buruzko bideo bat edo gardenki batzuk proiektatuko ditu, horien osagaietan arreta berezia jarrita.</p> <p>Osaeraren, lehortzeko moduaren eta aplikazioaren arabera pinturek duten sailkapena nabarmenduko du.</p>	<p>Pintura motak ezagutzeko eta, ondoren erabiltzearen, haiek sailkatzen jakitearen beharra ulertzeko.</p>	<p>Testuliburua.</p> <p>Apunteak.</p> <p>Ordenagailua eta proiektzio-kanoia, bideoa edo irakaslearen aurkezpenak.</p>
J4. Azalpena, ibilgailuak konpontzeko erabiltzen diren korrosioaren aurkako babes-produktuei buruzkoa.	1-2-3-5-7-9-10-13-14	2 h	X		<p>Irakasleak azaldu egingo ditu automobilak konpontzeko lantegian erabiltzen diren korrosioaren aurka babesteko produktu ohikoak.</p>	<p>Merkatuan dauden produktuei buruzko ikuspegi bat izateko, eta konponketa bakoitzean produktu bakoitza modu egokienean erabiltzeko.</p>	<p>Testuliburua.</p> <p>Apunteak.</p> <p>Ordenagailua eta proiektzio-kanoia, bideoa edo</p>



					Ikus-entzunezko baliabideak, proiektzioak, apunteak, produktuen katalogoak... erabiliko ditu.		irakaslearen aurkezpenak.
J5. Erakustaldia, korrosioaren aurkako produktuak aplikatzeko prozesuari buruzkoa.	Guztiak	3 h	X		Irakasleak korrosioaren aurka babesteko produktuak prestatu eta egokituko ditu, eta horiek karrozeriaren piezen edo elementuen gainean aplikatuko ditu. Beharrezko tresnen eta ekipoen doikuntza eta abiaraztea azalduko ditu.	Ikasleek korrosioaren aurkako produktuak prestatu eta aplikatzeko prozesuaren ikuspegi bat izateko. Erabili beharrek NBE elementuak ezagutzeko, bai eta hondakinak tratatzeko erabiltzen diren prozesuak ere.	Karrozeria- eta pintura-lantegia, dagozkion tren eta makinekin. Korrosioaren aurkako produktuak. Segurtasun-fitxak. Norberaren eta ingurumenaren babes- eta segurtasun-elementuak. Automobilen karrozeriak edo elementu solteak.
J6-E2. Korrosioaren aurkako 1K-ko produktuak aplikatzea.	Guztiak	3 h	X	X	Ikasleek gainazal metaliko baten gainean osagai bakarrek (1K) inprimazioa aplikatuko dute. Horretarako, J1, J3, J4 eta J5 jardueretan azaldukoak praktikan jarriko dute. Irakasleak esku hartuko du ikasleek praktikan zehar laguntza behar dutela ikusten duenean. Irakasleak aplikazioko ekipoen, eta babes-ekipo banakoen edo orokorren erabilera egokia ebaluatuko du.	Korrosioaren aurkako osagai bakarrek produktuak prestatu eta aplikatzen trebetasuna lortzeko. Ekipoen eta erreminten erabilera eta garbiketa egokia, eta segurtasun-baliabideen erabilera behatu eta ebaluatzeko.	Karrozeria- eta pintura-lantegia, dagozkion tren eta makinekin. Korrosioaren aurkako 1K-ko produktuak. Segurtasun-fitxak. Norberaren eta ingurumenaren babes- eta segurtasun-elementuak. Automobilen karrozeriak edo elementu solteak.
J7-E3. Korrosioaren aurkako 2K-ko produktuak aplikatzea.	Guztiak	3 h	X	X	Ikasleek gainazal metaliko baten gainean bi osagaiko (2K) inprimazioa aplikatuko dute. Horretarako, J1, J3, J4 eta J5	Korrosioaren aurkako bi osagaiko produktuak prestatu eta aplikatzen trebetasuna lortzeko. Norberaren edo ingurumenaren	Karrozeria- eta pintura-lantegia, dagozkion tren eta makinekin. Korrosioaren aurkako 2K-ko produktuak.



					<p>jardueretan azaldutakoa praktikan jarriko dute. Irakasleak esku hartuko du ikasleek praktikan zehar laguntza behar dutela ikusten duenean.</p> <p>Irakasleak aplikazioko ekipoen, eta babes-ekipo banakoen edo orokorren erabilera egokia ebaluatuko du.</p>	<p>segurtasunerako neurriak erabiltzen ohitzeko.</p> <p>Ekipoen eta erreminten erabilera eta garbiketa egokia, eta segurtasun-baliabideen erabilera behatu eta ebaluatzeko.</p>	<p>Segurtasun-fitxak.</p> <p>Norberaren eta ingurumenaren babes- eta segurtasun-elementuak.</p> <p>Automobilen karrozeriak edo elementu solteak.</p>
J8-E4. Korrosioaren aurkako poliuretanozko eta epoxidikazko produktuak aplikatzea.	Guztiak	3 h	X	X	<p>Ikasleek gainazal metaliko baten gainean poliuretanozko edo epoxidikazko inprimazioa aplikatuko dute.</p> <p>Horretarako, J1, J3, J4 eta J5 jardueretan azaldutakoa praktikan jarriko dute. Irakasleak esku hartuko du ikasleek praktikan zehar laguntza behar dutela ikusten duenean.</p> <p>Irakasleak aplikazioko ekipoen, eta babes-ekipo banakoen edo orokorren erabilera egokia ebaluatuko du.</p>	<p>Korrosioaren aurkako epoxi poliuretanozko produktuak prestatu eta aplikatzen trebetasuna lortzeko.</p> <p>Norberaren edo ingurumenaren segurtasunerako neurriak erabiltzen ohitzeko.</p> <p>Ekipoen eta erreminten erabilera eta garbiketa egokia, eta segurtasun-baliabideen erabilera behatu eta ebaluatzeko.</p>	<p>Karrozeria- eta pintura-lantegia, dagozkion trena eta makinekin.</p> <p>Korrosioaren aurkako poliuretanozko edo epoxizko produktuak.</p> <p>Segurtasun-fitxak.</p> <p>Norberaren eta ingurumenaren babes- eta segurtasun-elementuak.</p> <p>Automobilen karrozeriak edo elementu solteak.</p>
J9-E5. Altzairuzko txaparen gainean korrosioaren aurkako produktuak aplikatzea.	Guztiak	3 h		X	<p>Ikasleek, banaka eta pieza jakin baten gainean, pieza osatzen deneko materialari egokitutako korrosioaren aurkako produktu bat prestatu eta aplikatuko dute.</p>	<p>Ikasleak alde praktikotik (trebetasuna eta abilezia) ebaluatzeko J1, J2, J3, J4 eta J5 jardueretan azaldutakoaren gainean.</p>	<p>Karrozeria- eta pintura-lantegia, dagozkion trena eta makinekin.</p> <p>Korrosioaren aurkako produktuak.</p> <p>Segurtasun-fitxak.</p> <p>Norberaren eta ingurumenaren babes- eta segurtasun-elementuak.</p> <p>Automobilen karrozeriak edo elementu solteak.</p>



E5. Ebaluazioa, J1, J2, J3 eta J4 jardueretako eduki teorikoena.	Guztiak	1,5 h		X	Ikasleek 1., 2., 3. eta 4. unitateei buruzko idatzizko proba bat egingo dute.	Ikasleak alde teorikotik ebaluatzeko J1, J2, J3, J4 eta J5 jardueretan azaldutakoaren gainean.	Ikasgela.
OHARRAK							
<ul style="list-style-type: none">• UD honetan, tresnak eta erremintak erabiltzen hasten dira. Horregatik, horiei buruzko gutxieneko azalpen bat emango da (erregulazioa, garbiketa, abiaraztea). Izan ere, aurrerago haien funtzionamendua, mantentze-lanak eta gainerakoak sakonean azalduko dira.• Ikasleek egindako lanak artxibatu eta kalifikatu behar dira. Horri esker, UDa ebaluatu ahal izateko erreferentzia bat eduki ahal izango da.• Lanaren aurkezpenean, haren garbitasuna, edukia eta kalitatea balioetsiko dira.• Praktiken ebaluazioan, kontuan hartuko da inprimazio-geruzen lodiera eta barruko eremuetan edo profiletan inprimazioa behar bezala aplikatu izana.							



4. unitate didaktikoa: LIXATZEKO EKIPOAK ETA PROZESUAK AZTERTU ETA APLIKATZEA

Iraupena: 25 ordu

- IE1:** Aplikatu beharreko konponketa-prozesua zehazten du, eta, horretarako, gainazalak babestu, berdindu eta txukuntzeko geruzen ezaugarriak aztertzen ditu.
- IE2:** Gainazalak babestu, berdindu, zigilatu eta hosgabetzeko teknikak aplikatzen ditu, eta, horretarako, lan-prozedurak interpretatzen ditu.
- IE6:** Arriskuen prebentziorako, norberaren segurtasunerako eta ingurumen-babeserako neurriak aplikatu ditu, lan-baldintzak eta arrisku-faktoreak balioetsi ondoren.

Ikaskuntzaren helburuak:

1. Gainazalak babestu, berdindu eta txukuntzeko erabiltzen diren produktuen ezaugarriak azaltzea, eta horiek ibilgailuaren eremuekin eta prozesuekin lotzea.
2. Ekipoen, makinaren eta baliabideen ezaugarriak deskribatzea, eta horiek prozesuekin lotzea.
3. Lixatze-prozesuen bidez gainazalak babestu eta txukuntzeko geruzak identifikatzea.
4. Elementuaren materialaren arabera (metalikoa edo sintetikoa), babestu, berdindu eta txukuntzeko geruzekin erabili beharreko produktuak zerrendatzea.
5. Disolbatzailearen eta lixaren teknika erabilia, ibilgailuaren pintura mota identifikatzea (sintetikoa, akrilikoa, geruza bakarrekoa eta bi geruzakoa, besteak beste).
6. Lan-prozedura fabrikatzailearen zehaztapenen arabera hautatzea.
7. Muntaia-sekuentzia finkatzea, ezarritako prozedurari jarraituz.
8. Eskatutako zehaztapen teknikoak eta kalitatekoak betetzeko amaierako akabera zehaztea.
9. Konpondu beharreko eremua desugertu, prestatu eta garbitzeko prozesuak erabiltzea, eta gainazalaren egoera egiaztatzea.
10. Dokumentazio teknikoa interpretatzea, eta hura sinbologiarekin, eta prozesuaren zehaztapenekin eta aplikatu beharreko produktuekin lotzea.
11. Gainazalak babestu eta berdintzeko prozesuetan erabiltzen diren materialak eta denborak balioestea, eta ibilgailuaren fabrikatzaileak zehaztutakoetara egokitzea.
12. Larrialdietarako jardun-protokoloak zehaztea.
13. Hondakinak sailkatzea, haien toxikotasuna, ingurumenaren gaineko eragina eta ondorengo gaikako erretiratzea kontuan izanda.
14. Lan-prozesuetan laneko arriskuen prebentzioari, eta babes pertsonal eta kolektiboari buruzko arauak aplikatzea.

EDUKIAK		Multzok					
		1	2	3	4	5	6
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Pintura mota bakoitza identifikatzea (berdintzea). • Eragiketa-sekuentzia zehaztea. • Fitxa teknikoa eta segurtasun-fitxa interpretatzea. • Norbera babesteko ekipamendua erabiltzea. • Aplikazio-prozesuetan beharrezkoak diren ekipo eta instalazioen parametroetan doikuntzak egitea (gainazalak berdintzea). • Tratatu beharreko gainazalak prestatzea (lixatzea, koipegabetzea...). 	X	X				



	<ul style="list-style-type: none"> Baremazioa gainazalen prestaketan. Estaltze-prozesuak egitea. Erabilitako ekipoak eta produktuak garbitu eta birziklatzea. Ezarrita dauden laneko segurtasunari eta ingurumenari buruzko arauak betetzea. Akaberako pinturaren prozesuak barematzea. 		X							
	<ul style="list-style-type: none"> X X X X X 				X					
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> Gainazalak berdintzeko teknikak. Lixatzeko ekipoak (disco-makina, lixatzeko makina): xedea eta sailkapena. Lehortze-ekipoak: motak eta sailkapena. Instalazioak: xurgatze-eremuak, aire-instalazioak... Lixatzea: teknikak, ekipoak eta erremintak. Ekipoak eta instalazioak prestaketaren eta berdintzearen arloan. Konponketa bat planifikatzeko metodoak. <ul style="list-style-type: none"> Izandako kaltea aztertze metodoak. Aurrekontuak egiteko metodoak. Matxurak ikuskatzeko prozesua. Egiaztatze-metodoak. 		X	X		X				
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> NBEa erabiltzeko konpromisoa. Ingurunea (pertsonek eta ekipamendua) errespetatzea. Arreta erabilitako erremintak, makinak eta instalazioak kontserbatzea. Praktiketarako ezarritako epeko konpromisoa. 							X		
								X		
								X		
								X		
								X		
JARDUERA				METODOLOGIA				BALIABIDEAK		
ZER egingo dudan edo duten Jarduera mota		Helburu inplikak.	D.	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den		ZEREKIN egingo den	
				Ir.	Ik.					
J0. Udaren aurkezpena.		Guztiak	1 h	X		Irakasleak hainbat elementu urratzaile, lixatzeko erreminta, aire konprimituko zirkuituaren elementu, lixatze-eremu eta xurgatze-sistema erakutsiko ditu.	Ikasleak kokatzeko lanean erabiliko dituzten lixatzeko erreminta, tresna eta instalazioetan.		Pintura-lantegia, lixatze-prozesuetarako beharrezkoak diren erreminta, tresna eta instalazioekin. Ordenagailua eta proiektzio-	



					Komenigarria litzateke azalpena lantegian egitea; baina, bestela, bideo bat edo gardenkiak erabil daitezke.		kanoia, bideoa edo irakaslearen aurkezpenak.
J1. Azalpena, karrozeria konpontzeko erabiltzen diren urratzaileei buruzkoa.	2-3-4-5-6-7-8-9-10	2 h	X		Irakasleak urratzaileen prestaketari eta erabilerari buruzko apunteez, gardenkiez edo proiektioez baliatuz garatuko du gaia. Konposizioari dagokionez, bereziki jorratuko du urratzaileen sailkapenak eta kalitatezko akabera lortzeko horiek behar bezala hautatzeak duten garrantzia.	Urratzaileen konposizioa eta sailkapena ezagutzeko. Konponketa motaren eta konpondu beharreko materialaren arabera urratzaile egokia hautatzen jakiteko.	Ordenagailua eta proiektzio-kanoia, bideoa edo irakaslearen aurkezpenak. Hainbat konposizio, tamaina, xede, errendimendu eta abarretako urratzaileak.
J2. Azalpena, lixatzeko ekipoei eta aire konprimituaren hornidurari buruzkoa.	2-3-4-5-6-7-8-9-10	3 h	X		Irakasleak lixatzeko zenbait ekipa erakutsiko ditu (eskuzkoak, elektrikoak, pneumatikoak, xurgagailuak, plano xurgatzaileak). Ekipa bakoitzaren ezaugarriak azalduko ditu (abantailak, eragozpenak, funtzionamendua, mantentze-lanak...). Gardenkien edo bideo baten bitartez, irakasleak aire konprimituko zirkuitu baten osaera, haren elementu nagusiak, muntaia eta mantentze-lanak erakutsiko ditu.	Dauden lixatzeko ekipaok aztertzeko, konponketa-prozesu bakoitzera hoberen egokitzen dena hautatu ahal izateko. Lixatzeko ekipoen, aire konprimituko zirkuituaren eta horren elementuen mantentze-lan prebentiboak egiteko gai izateko.	Lixatzeko tresnak eta erremintak. Xurgagailuak eta lixatze-eremuak. Aire konprimituko konpresorea eta horren elementu periferikoak. Ordenagailua eta proiektzio-kanoia. Irakaslearen bideoa edo aurkezpenak.
J3-E1. Informazioa biltzea eta idatzizko lana egitea, lantegian dauden aire konprimituko zirkuitua eta lixatzeko makinak mantentzeko planarekin lotuta.	2-3-4-5-6-7-8-9-10	1,5 h		X	Irakasleak, J1ean azaldukoan oinarrituta, karrozeriako/pinturako lantegian dagoen aire konprimituko zirkuitua identifikatuko du eta, dokumentazio teknikoan oinarrituta, bai makinatarako, bai aire konprimituko	Higadurarekiko edota hausturarekiko sentikorrenak diren zirkuituaren elementuak aztertu eta horiei buruz gogoeta egingo du. Gainera, horien konponketa, mantentze-lanak edo ordezkapena aurreikusiko ditu,	Lantegiko aire konprimituko instalazioa. Lixatzeko erremintak, ekipaok eta tresnak.



					zirkuiturako mantentze-plan bat prestatuko du.	karrozeriako/pinturako lantegian dauden errementa gehienen funtzionamendu egokirako horrek duen garrantzia kontuan hartuta. Lana ebaluatu egingo da eta moduluaren ebaluaziorako kontuan hartuko da.	
J4. Azalpena, lehortzeko ekipoei buruzkoa.	1-2-6-7-8-10-11-12-14	4 h	X		Irakasleak lehortzeko ekipoei (IR izpiak, lehortzeko kabinak, air dry...) buruzko bideo bat edo gardenki batzuk proiektatuko ditu. Jarraian, lehortzeko ekipoen abiarazteari eta funtzionamenduari buruzko erakustaldi bat egingo du. Era berean, ekipo horien ezaugarriak, osaera eta mantentze-lanak nabarmenduko ditu.	Merkatuan dauden lehortzeko ekipoen funtzionamendua eta osaera ezagutzeko. Kalitateari eta konponketa-prozesuaren errentagarritasunari dagokionez egokiena hautatzen jakiteko. Lehortzeko ekipoen mantentze-lan prebentiboak egiteko gai izateko.	Testuliburua. Apunteak. Ordenagailua eta proiektzio-kanoia. Irakaslearen bideoa edo aurkezpenak. Mota desberdinetako lehortzeko ekipoak. Fitxa teknikoak eta mantentze-lanetakoak.
J4. Erakustaldia, ibilgailuak konpontzeko erabiltzen diren tresna, urratzaile eta ekipoekin lixatzeko prozesuarena.	Guztiak	2 h	X		Irakasleak J1, J2 eta J4 jardueretan azaldutakoaren erabilera erakutsiko du. Ibilgailuen piezak, lixatzeko zenbait produktu dituztenak, erabiliko ditu. Lixatu behar ez diren eremuak estaliko ditu. Beharrezkoak diren norberaren eta ingurumenaren segurtasun- eta babes-baliabideak erabiliko ditu.	Ikasleek karrozeriak konpondu eta pintatzeko erabiltzen diren lixatze-prozesuen ikuspegi bat izateko. Erabili beharreko NBE elementuak ezagutzeko, bai eta hondakinak tratatzeko erabiltzen diren prozesuak ere.	Karrozeria- eta pintura-lantegia, dagozkion trena eta makinekin. Segurtasun-fitxak. Norberaren eta ingurumenaren babes- eta segurtasun-elementuak. Automobilien karrozeriak edo elementu solteak.



<p>J5-E2. Praktika autonomoa, eremu laueta erabiltzen diren lixatze-teknikak gauzatzekoa.</p>	Guztiak	3 h	X	X	<p>Ikasleek J1, J3, J4 eta J5 jardueretan azaldutakoa praktikan jarriko dute. Horretarako, lantegiko ibilgailuen karrozerietako eremu lauen edo piezen gainean lixatze-prozesuak gauzatuak dituzte.</p> <p>Irakasleak lixatzeko ekipoen, eta babes-ekipo banakoen edo orokorren erabilera egokia ebaluatuko du.</p> <p>Irakasleak esku hartuko du ikasleek praktikan zehar laguntza behar dutela ikusten duenean.</p>	<p>Lixatzeko tresnak eta makinak erabili eta aukeratzeko trebetasuna lortzeko. Ikasleak norberaren edo ingurumenaren segurtasunerako neurriak erabiltzen ohitzeko.</p> <p>Segurtasun-neurrien erabilera, eta ekipoen eta erreminten erabilera eta garbitasun egokia behatu eta ebaluatzeko.</p>	<p>Karrozeria- eta pintura-lantegia, dagozkion tren eta makinekin. Pikor desberdinetako urratzaileak. Garbitzeko produktuak. Segurtasun-fitxak. Norberaren eta ingurumenaren babes- eta segurtasun-elementuak. Automobilien karrozeriak edo elementu solteak.</p>
<p>J6-E3. Praktika autonomoa, eremu kurbatuetan erabiltzen diren lixatze-teknikak gauzatzekoa.</p>	Guztiak	2 h	X	X	<p>Ikasleek J1, J3, J4 eta J5 jardueretan azaldutakoa praktikan jarriko dute. Horretarako, lantegiko ibilgailuen karrozerietako eremu kurbatuetan edo piezen gainean lixatze-prozesuak gauzatuak dituzte.</p> <p>Irakasleak lixatzeko ekipoen, eta babes-ekipo banakoen edo orokorren erabilera egokia ebaluatuko du.</p> <p>Irakasleak esku hartuko du ikasleek praktikan zehar laguntza behar dutela ikusten duenean.</p>	<p>Lixatzeko tresnak eta makinak erabili eta aukeratzeko trebetasuna lortzeko. Ikasleak norberaren edo ingurumenaren segurtasunerako neurriak erabiltzen ohitzeko.</p> <p>Segurtasun-neurrien erabilera, eta ekipoen eta erreminten erabilera eta garbitasun egokia behatu eta ebaluatzeko.</p>	<p>Karrozeria- eta pintura-lantegia, dagozkion tren eta makinekin. Pikor desberdinetako urratzaileak. Garbitzeko produktuak. Segurtasun-fitxak. Norberaren eta ingurumenaren babes- eta segurtasun-elementuak. Automobilien karrozeriak edo elementu solteak.</p>
<p>J7-E4. Praktika autonomoa, ertzak edo nerbioak dituzten eremuetan erabiltzen</p>	Guztiak	3 h	X	X	<p>Ikasleek J1, J3, J4 eta J5 jardueretan azaldutakoa praktikan jarriko dute.</p>	<p>Lixatzeko tresnak eta makinak erabili eta aukeratzeko trebetasuna lortzeko.</p>	<p>Karrozeria- eta pintura-lantegia, dagozkion tren eta makinekin.</p>



diren lixatze-teknikak gauzatzekoa.					<p>Horretarako, ertzak, profilak, nerbioak edo kantalak dituzten karrozerietako eremuen edo piezen gainean lixatze-prozesuak gauzatu dituzte.</p> <p>Irakasleak lixatzeko ekipoen, eta babes-ekipo banakoen edo orokorren erabilera egokia ebaluatuko du.</p> <p>Irakasleak esku hartuko du ikasleek praktikan zehar laguntza behar dutela ikusten duenean.</p>	<p>Ikasleak norberaren edo ingurumenaren segurtasunerako neurriak erabiltzen ohitzeko.</p> <p>Segurtasun-neurrien erabilera, eta ekipoen eta erreminten erabilera eta garbitasun egokia behatu eta ebaluatzeko.</p>	<p>Pikor desberdinetako urratzaileak.</p> <p>Garbitzeko produktuak.</p> <p>Karrozari-zinta.</p> <p>Segurtasun-fitxak.</p> <p>Norberaren eta ingurumenaren babes- eta segurtasun-elementuak.</p> <p>Automobilen karrozeriak edo elementu solteak.</p>
J8-E5. Praktika autonomoa, gainazal sintetikoetan erabiltzen diren lixatze-teknikak gauzatzekoa.	Guztiak	2 h	X	X	<p>Ikasleek J1, J3, J4 eta J5 jardueretan azaldutakoa praktikan jarriko dute.</p> <p>Horretarako, gainazal sintetikoaren gainean lixatze-prozesuak gauzatu dituzte.</p> <p>Irakasleak lixatzeko ekipoen, eta babes-ekipo banakoen edo orokorren erabilera egokia ebaluatuko du.</p> <p>Irakasleak esku hartuko du ikasleek praktikan zehar laguntza behar dutela ikusten duenean.</p>	<p>Lixatzeko tresnak eta makinak erabili eta aukeratu trebetasuna lortzeko.</p> <p>Ikasleak norberaren edo ingurumenaren segurtasunerako neurriak erabiltzen ohitzeko.</p> <p>Segurtasun-neurrien erabilera, eta ekipoen eta erreminten erabilera eta garbitasun egokia behatu eta ebaluatzeko.</p>	<p>Karrozeria- eta pintura-lantegia, dagozkion trenak eta makinekin.</p> <p>Pikor desberdinetako urratzaileak.</p> <p>Garbitzeko produktuak.</p> <p>Segurtasun-fitxak.</p> <p>Norberaren eta ingurumenaren babes- eta segurtasun-elementuak.</p> <p>Automobilen karrozeriak edo elementu sintetiko solteak.</p>
E6. Ebaluazioa, J1, J2, J3, J4, J5, J6, J7 eta J8 jardueretako eduki teorikoa.	Guztiak	1,5 h		X	<p>Ikasleek 1., 2., 3., 4., 5., 6., 7. eta 8. UDei buruzko idatzizko proba bat egingo dute.</p>	<p>Ikasleak alde teorikotik ebaluatzeko J1, J2, J3, J4, J5, J6, J7 eta J8 jardueretan azaldutakoaren gainean.</p>	<p>Ikasgela.</p>



OHARRAK

- UD honetan, ikasleek autonomia handiagoaz erabiltzen dituzte lantegiko ekipoak eta erremintak. Horregatik, garrantzitsua da lantegian, eta ekipo eta erreminta bakoitzean dauden prebentzio- eta segurtasun-seinaleak kontuan hartzea.
- Ikasleek egindako lanak artxibatu eta kalifikatu behar dira. Horri esker, UDa ebaluatu ahal izateko erreferentzia bat eduki ahal izango da.
- Lanaren aurkezpenean, haren garbitasuna, edukia eta kalitatea balioetsiko dira.
- Praktiken ebaluazioan, lixatu beharreko gainazalaren arabera lixatzeko makinak edo ekipoak zuzen aukeratzea balioetsiko da.



5. unitate didaktikoa: GAINAZALAK BERDINTZEKO PROZESUAK AZTERTU ETA APLIKATZEA

Iraupena: 35 ordu

- IE1:** Aplikatu beharreko konponketa-prozesua zehazten du, eta, horretarako, gainazalak babestu, berdindu eta txukuntzeko geruzen ezaugarriak aztertzen ditu.
IE2: Gainazalak babestu, berdindu, zigilatu eta hosgabetzeko teknikak aplikatzen ditu, eta, horretarako, lan-prozedurak interpretatzen ditu.
IE6: Arriskuen prebentziorako, norberaren segurtasunerako eta ingurumen-babeserako neurriak aplikatu ditu, lan-baldintzak eta arrisku-faktoreak balioetsi ondoren.

Ikaskuntzaren helburuak:

1. Elementuaren materialaren arabera (metalikoa edo sintetikoa), berdintzeko geruzekin erabili beharreko produktuak zerrendatzea.
2. Ekipoen, makinaren eta baliabideen ezaugarriak deskribatu ditu, eta horiek prozesuekin lotu ditu.
3. Lan-prozedura fabrikatzailearen zehaztapenen arabera hautatzea.
4. Muntaia-sekuentzia finkatzea, ezarritako prozedurari jarraituz.
5. Eskatutako zehaztapen teknikoak eta kalitatekoak betetzeko amaierako akabera zehaztea.
6. Konpondu beharreko eremua desugertu, prestatu eta garbitzeko prozesuak erabiltzea, eta gainazalaren egoera egiaztatzea.
7. Dokumentazio teknikoa interpretatzea, eta sinbologia eta zehaztapenak aplikatu beharreko prozesuarekin eta produktuekin lotzea.
8. Gainazalak babestu eta berdintzeko prozesuetan erabiltzen diren materialak eta denborak balioestea, eta ibilgailuaren fabrikatzaileak zehaztutakoetara egokitzea.
9. Produktuak prestatzea, nahasteen proportzio- eta biskositate-arauei jarraituz.
10. Ekipoen eta instalazioen parametroak doitzea.
11. Konpondu behar ez diren eremuak estaltzea.
12. Besteak beste, betetzeko produktuak, zigilatzaileak, aparrak eta hosgabetzaileak aplikatzea, eta produktuak eta aplikazio-eremua hautatzea.
13. Ezarritako prozedurari jarraituz eragiketa-sekuentzia zehaztea, fabrikatzailearen zehaztapenak kontuan izanda.
